

EUSKADI KO PENTSI OAK EPSV 2025, INDIVIDUAL

57 urte edo gehiago badituzu.

2025 Aurreikuspen Plana

Zure belaunaldiaren plana da, 2025 inguruko erretiro-data duten bezeroentzat berariaz sortutakoa.

Zure 2025 Aurreikuspen Planak zorro dibertsifikatua izango du, eta automatikoki eta progresiboki egokituko da erretiroa hartu arte geratzen zaizkizun urteetara, ahalik eta errendimendurik handiena atera diezaiozun eta hilez hil aurreztu beste kezkarik izan ez dezazun. Gainerakoa gure aditu-taldeak egingo du: inbertsioa egokituz joango da, gero eta arrisku txikiagoa izan dezan.

- Irakurketa historikoen arabera, esan dezakegu arrisku handieneko aktiboa (hala nola errenta aldakorra) epe luzera errentagarriagoak izan direla aktibo seguruenak (epe laburrerako errenta finkoa, kasu) baino, lehenengoek gorabeherak (hegazkortasuna) izan arren.

Horregatik, horrelako aktiboetan egiten den inbertsioak pisu handiagoa du hasieran, arrisku handiagoa hartzen baitu aurreztutako zenbatekoa txikia denean eta balizko beheraldietatik errekupeatzeko denbora nahikoa dagoenean.

- Errenta finkoarekin, berriz, epemuga jakin batean oinarritutako zorroaren gestioak errentagarritasun handiak ematen ditu hasierako inbertsioetan, eta hegazkortasuna txikituz joaten da epemuga hurbildu ahala.

Inbertsio-eskema horrekin, planaren saldoa handituz doan neurrian eta erretiroa hartzeko denbora gutxiago geratzen den heinean, arriskurik handieneko aktiboen pisua txikituz joango da, eta arrisku txikiagoko beste batzuek ordezkatu dituzte.

Hortaz, inbertsioen arriskua epe luzean gestionatuz, aukera gehiago izango ditugu arriskurik gabeko edo epe laburragoko inbertsioekin lortuko ez genituzkeen errentagarritasunak lortzeko. Horri esker, aurrezteko esfortzua txikiagoa izan daiteke, metatutako kapitalaren errebalorizazioa gehitu egingo baitzaio ekarpenen zenbatekoari. Halere, baliteke inbertsioen eboluzioa espero bezalakoa ez izatea eta galerak izatea ere.

